



Arartekoaren 2013ko martxoaren 14ko ebazpena. Honen bidez, Gamiz-Fikako Udalari gomendioa egiten zaio udal-talde bati eskuordetutako udal-zeregina garatu ahal izateko beharrezkoa duen informazioa eman diezaion eta konfiantzazko langileen izendapena berrazter dezan.

Aurrekariak

1. Gamiz-Fikako Udalean zinegotzi den (...) andreak kexa bat aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, bere taldeak etengabe arazoak izaten omen dituelako udal-egitekoa betetzeko orduan, eta udalaren funtzionamenduari buruzko beste kontu batzuk ere aipatzen zituen kexan.

Pertsona horrek adierazitakoaren arabera, bere udal-taldea 2011ko irailaren 30az geroztik ari da Udalaren funtzionamenduari buruzko datuak eskatzen, baina ez dute inolako erantzunik lortu ordainketak, kontratazioak, dokumentuen sartu-irtenak eta antzeko gaien inguruan. Eta informazioaren bat eman izan dietenean, hura ez da planteatutako gaiaren mamira iritsi. Tarte honetan honako dokumentazioa eskatu omen dute:

- Kontu-ikuskapenaren espediente (2011-9-30).
- Data jakin batzuetako banku-saldoak (2011-11-16).
- Erregistroko sartu-irtenen hileroko zerrendaren kopia. (12-3-27).
- Bizkaibusen autobus-lineak aldatu izanaren inguruan Bizkaiko Foru Aldundiak igorritako dokumentazioa (2012-5-7).
- ARKIGEST etxearekin aholkularitza teknikorako sinatutako kontratuaren kopia (2012-5-18).
- Udalak 2012. urtean egindako ordainketak (2012-6-4).
- Garaioltza inguruko saneamendu-lanak (2012-6-4).

Azkenik, zinegotziak aipatu du Alkatetzaren 2011ko uztailaren 12ko Dekretuaren bidez alkatearentzako, alkateordearentzako eta Bildu udal-taldearentzako aholkulari partikularra izendatu dutela, eta aholkulari horrek doan egingo duela lan.

2. Kexa aztertu ondoren, informazioa eskatu genion Gamiz-Fikako Udalari 2012ko azaroaren 7an. Horrez gain, zinegotziek euren lana bete ahal izateko duten informazio-eskubidearen zein zinegotzi erreklamatzailerak planteatutako bestelako gai batzuen inguruan egin genituen lehenengo gogoetak ere helarazi genizkion aipatutako Udalari.
3. Informazio-eskariari erantzuteko ezarri genuen epea igaro ondoren (2013ko urtarrilaren 18a) udalak oraindik ez zigun erantzunik helarazi, beraz, eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaltzeko errekerimendua igorri genion alkate-udalburuari.





4. Azkenik, 2013ko otsailaren 11n ohartarazpen bat igorri genion, erakunde honi kexaren zergatiaren eta egindako jardueren gaineko informazioa emateko obligazioa bete zezan gehienez ere 15 eguneko epean. Udalak ez dio azken jakinarazpen horri ere erantzun.

Aurrekariok kontuan hartuta, egoki deritzogu honako gogoetei jarraiki ebazpen hau emateari:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, gaian murgildu aurretik, salatu egin nahi dugu Gamiz-Fikako Udalak erakunde honekiko erakutsi duen lankidetzarik eza. Gogorarazi behar dugu Arartekoa sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua xedatzen duenez, legez ezarritako betebeharra dela erakunde honek eskatzen dituen datu, dokumentu, txosten eta argibide guztiak lehentasunez eta lehenbailehen aurkeztea. Horrenbestez, aurrekarietan azaldu dugunaren arabera, udalak ez du erakunde honekiko legez duen obligazioa bete.

Beraz, kexa-espeditate honen kasuan egin dezakegun gauza bakarra kexa aurkeztu duen pertsonak helarazi digulako daukagun dokumentazioa eta informazioa baliatuta balorazio bat egitea izango da. Laburbilduz, ezin ditugu informazioa eta udalak egin litzakeen gogoetak egiaztatu, baina jarraian adieraziko ditugun baldintzetan ebazpen bat emateko moduan gaude honako azterketa abiapuntu hartuta.

2. Zinegotzi erreklamatazaileak planteatzen duen gaia Konstituzioaren 23.1 artikulua ematen duen funtsezko eskubidearen barruan sartu behar da. Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidea dute, dela zuzenean, dela aldizka hauteskundeetan sufragio unibertsal bidez libreki aukeratutako ordezkarien bidez. Kargu publiko horiek betetzen dituzten ordezkariak, aukeratu dituzten herritarren ordezkariak diren heinean, Legeak ematen dizkien bitarteko guztiak erabilita balia dezakete eskubide hori, eta hautetsi izateak ematen dien aginpidea udal-jardueraren alderdi guztietara eta horien kontrol demokratikora hedatzen da.

Zinegotziek euren eginkizunak betetzeko behar duten informazioa jasotzeko daukaten eskubidea Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (TAOL) xedatzen du eta azaroaren 28ko 2568/1996 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko erakundeen Antolakuntza eta Funtzionamendurako Araudiak (AFA) garatzen du.

TAOLen 77. artikulua honakoa xedatzen du:

“Toki-korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku egon eta beren eginkizunak garatzeko beharrezko aurrekariak, datuak edo





argibideak alkate edo lehendakariarengandik edo gobernu-batzordearengandik lortzeko eskubidea.

Aurreko lerroaldean jasotako eskubidea gauzatzeko eskabidea aurkeztu ondorengo hurrengo egutegiko bost egunetan ebatzi beharko da arrazoiak emanda."

AFaren 14. artikulua, aldiz, honakoa jasotzen du:

"1. Todos los miembros de las Corporaciones Locales tienen derecho a obtener del Alcalde o Presidente o de la Comisión de Gobierno cuantos antecedentes, datos o informaciones obren en poder de los servicios de la Corporación y resulten precisos para el desarrollo de su función.

2. La petición de acceso a las informaciones se entenderá concedida por silencio administrativo en caso de que el Presidente o la Comisión de Gobierno no dicten resolución o acuerdo denegatorio en el término de cinco días, a contar desde la fecha de solicitud.

3. En todo caso, la denegación del acceso a la documentación informativa habrá de hacerse a través de resolución o acuerdo motivado."

Azkenik, kontu honen inguruan interesgarria da AFaren 16.1 artikulua ere aipatzea, honakoa adierazten baitu:

"La consulta y examen concreto de los expedientes, libros y documentación en general se regirá por las siguientes normas:

a. La consulta general de cualquier expediente o antecedentes documentales podrá realizarse, bien en el archivo general o en la dependencia donde se encuentre, bien mediante la entrega de los mismos o de copia al miembro de la Corporación interesado para que pueda examinarlos en el despacho o salas reservadas a los miembros de la Corporación. El libramiento de copias se limitará a los casos citados de acceso libre de los concejales a la información y a los casos en que ello sea expresamente autorizado por el Presidente de la Comisión de Gobierno."

Horrenbestez, zinegotziak izapidetu dituen eskabideek behar bezala arrazoitutako berariazko ezezko ebazpenik jasotzen ez badute bost eguneko epean, ulertu beharko da baimena eman egin dela, beraz, aipatutako espedienteak eta informazioa gordetzeko ardura duten langileek nahitaez eman beharko dizkiote datu horiek interesdunari.

Informazio-eskabideak administrazio-isiltasunaren ondorioz onartutzat jotzearen ondorio juridikoa azpimarratu behar dugu, garrantzitsua baita administrazio-espedienteen arduradun diren funtzionario edo langileek euren egitekoa behar bezala betetzea. Horrenbestez, eskatutakoa eman ezean, langile horiek euren erantzukizuna salbuetsi beharko dute arrazoi juridiko egokia edo/eta Alkatearen zein euren gaineko agintariaren idatzizko berariazko agindua erakutsita.





3. Aurreko guztia alde batera utzi gabe, uste dugu udalak AFaren 15. artikuluan xedatutakoa ere hartu behar duela kontuan, honakoa ezartzen baitu:

“No obstante lo dispuesto en el número 1 del artículo anterior, los servicios administrativos locales estarán obligados a facilitar la información, sin necesidad de que el miembro de la Corporación acredite estar autorizado, en los siguientes casos:

.../...

- a. Cuando se trate del acceso de cualquier miembro de la Corporación, a la información y documentación correspondiente a los asuntos que hayan de ser tratados por los órganos colegiados de que formen parte, así como a las resoluciones o acuerdos adoptados por cualquier órgano municipal.*
- b. Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación a la información o documentación de la entidad local que sean de libre acceso para los ciudadanos.”*

Laburbilduz, zinegotziek zuzenean eskatu ahal izango diete administrazio-zerbitzuei udal-erakundeek hartutako edozein ebazpen edo akordioaren berri, hala nola, alkatearen dekretuak zein gobernu-batzordearen akordioak. Herritarrek libreki lor dezaketen dokumentazioari dagokionean, kontuan hartu beharko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (HAAJAPEL) 37. artikulua.

4. Forma kontuak ere aipatu nahi ditugu, erreklamatzailerak udalarengandik jaso dituen zenbait erantzunen inguruan.

Lehenik eta behin, ez dagokio udalari eskatutako datuen edo informazioaren gainean zinegotzi erreklamatzailerak egin dezakeen balorazioa *a priori* epaitzea. Adibidez, 2011ko ekainaren 11n, uztailaren 31n, abuztuaren 31n, irailaren 30ean eta urriaren 31n udalak bankuko kontuetan izan zuen saldoaren berri izateko eskabideari erantzuteko idazkian aipatzen zen zinegotziak eskatutako informazioa partzial, osatugabe eta alferrikakotzat jotzen duela udalak, informazio horrek ez baititu kontuan hartzen ordaindu eta kobratu beharreko zenbatekoak. Hau da, eskatutako informazioa emateari uko egin zitzaion udaleko norbaiten ustetan informazio horrek ez zuelako balio beste datu osagarri batzuk ere izan ezean.

Udalak baloratu egin behar du lehen aipatu dugun araudiaren arabera eman egin behar duen ala ez zinegotzi erreklamatzailerak eskatutako informazioa. Gerora ere defendatu ahal izango ditu erantzunean adierazitako arrazoiak, baina ezin du hasiera-hasieratik balio-judizioa egin eta iritzi hori informazioa ez emateko aitzakia gisa erabili. Ematen zaizkion kontabilitate-datuekin egiten duen erabilera eta balorazioa eskatzailearen beraren erantzukizuna izango da.

Bestalde, aurreko kasuan eta erantzuna jaso duen beste kasuren batean zinegotziak hartu duen idazkiaren edukia bera ere aipatu nahi dugu. Udaleko





irteera-erregistroa eta zigilua daramatza idazkiak, baina inon ez da ageri idazkia izenpetzen duen pertsonaren izena ez kargua, eta sinatuta ere ez dago, beraz, ezinezkoa da zein organok eman duen eta zer-nolako eskumenak dituen jakitea. Gainera, ez du adierazten zer-nolako errekurtsioak jar daitezkeen, errekurtsiook zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta horiek jartzeko epeak zeintzuk diren (HAAJAPELen 53 eta 58. artikulua).

Horrek guztiak argi erakusten du administrazio-prozedura, gutxieneko edukiak eta legez xedatutako jarraibideak bermatzeko beharrezko izapideak ez direla errespetatu. Administrazioaren jarduna formalegia izaterik nahi ez bada onargarria litzateke aipatutakoa bezalako idazki bat igortzea baldin eta eskatutakoari guztiz erantzungo balitzai, baina ezin da halako idazkirik igorri eskatutakoari uko egiten bazaio, horrek babesgabe uzten baitu eskabidea aurkeztu zuen pertsona. Horren guztiaren ondorio juridikoa zera da, jasotako idazkia baliogabea dela.

5. Azkenik, zinegotziak aipatu du Alkatetzaren 2011ko uztailaren 12ko Dekretuaren bidez alkatearentzako, alkateordearentzako eta Bildu udal-taldearentzako aholkulari partikularra izendatu dutela.

Horren inguruan ebazpenaren oinarria aipatu behar dugu beste ezer baino lehen. Lehen hizpide izan ditugun TAOLen 77. artikulua eta AFAREN 14. artikulua eta hurrengoak aipatzen dira ebazpenean, baina jarraian honakoa adierazten da: *"...este derecho a la información no previene que el concejal o alcalde pueda hacerse acompañar de un asesor que no forme parte del personal de la corporación y lo haga como asesor particular, pero si tenemos en cuenta que con carácter general los ciudadanos tienen derecho a la información sobre los asuntos locales así como a consultar archivos y registros en los términos de los artículos 70.3 LRBRL, 207 ROF y 37 de LRJPAC, no se ve inconveniente en que, si el Alcalde los autoriza, puedan los Concejales, Alcalde o Teniente Alcalde consultar la citada documentación asistidos de una persona ajena a la Corporación siempre que estos asesores guarden idéntica reserva que los municipios sobre la documentación obtenida".*

Argudiaketa horren bidez, alkateak honakoa ebatzi du:

- (...) alkatearentzako, alkateordearentzako eta Bildu udal-taldearentzako aholkulari partikular izendatzea. Udalean dagoen informazioa jasotzeko eskubidea baliatzeko beharrezkoa den dokumentazioa kontsultatu ahal izango du, beti ere aholku-hartzaileetako batekin baldin badago.
- Izendapenari esker, edozein unetan sartu ahal izango da udal-lokaletan, beti ere aurreko puntuan aipatutako pertsonetako batekin badago.
- Zeregin hori doan egingo du, inolako soldatarik edo udal-haborokinik jaso gabe.





Alkateari informazioa eskatzeko igorri genion idazkian aipatzen genuen legez, uste dugu hizpide dugun Alkateza Ebazpenaren oinarria ez dela egokia, Udaltzako kideek euren eginkizuna betetzeko behar duten informazioa lortzeko eskubidea eta herritarrek oro har tokiko gaiei buruzko informazioa jasotzeko duten eskubidea hartzen baititu oinarri, baina eskubide horien edukiaren muina ezberdina da, eta ez dugu aurkitzen eskubide horiek baliatzearen eta gobernu-taldearentzako aholkulari partikularra izendatzearen arteko loturarik.

Gure ustetan, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren (apirilaren 12ko 7/2007 Legea) 12. artikulua arautzen du gai hori.

“Behin-behineko langile dira, izendapen bati esker eta behin betiko izaerarik gabe, konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezizat berariaz kalifikatutako eginkizunak bakarrik egiten dituztenak; xede horretarako izendatutako aurrekontu-kredituetatik ordainduko zaie.”

Halaber, 7/1985 Legearen 89. artikulua xedatzen du Tokiko Erakundeek zerbitzura dauden langileak lan-zuzenbideko araubidean kontratatutako karrerako funtzionarioak edo konfiantzako postuak zein aholkularitza berezirako lanak betetzen dituzten aldi baterako langileak izan beharko direla.

Konfiantzako langileak izendatuz gero ezinbestekoa izango da horiek plantillan eta erakundeko lanpostuen zerrendan sartzea. Konfiantzako langileria hori egoteko aurreikuspena udaleko osoko bilkuran erabaki behar da libreki. Halako funtzionarioak izendatzeko eta kargutik kentzeko prozedura askea da eta alkateari dagokio (TAOLen 104. artikulua).

Horrenbestez, alkateak halako langilerik izendatu nahi badu, adierazitako prozedurari jarraiki egin beharko du. Eskuratu ahal izan dugun informazioaren arabera, alkatezaren dekretuak ez du egindako izendapena gauatzeko aurreikusitako prozedura bete, beraz, ebazpen hori ez da egokia zuzenbideari dagokionean.

Gainera honakoa ere azpimarratu behar dugu: egokia da alkatearen eta gainerako gobernu-organoen konfiantzako aholkularitzarako langileak plantillan sartu izana, baina ez dirudi egokia denik halako langileak udal-taldeetako bakarrari aholku emateko izendatu izana, udalean ordezkaritza duten gainerako udal-taldeei horretarako aukerarik eman gabe, horrek diskriminazioa ekarriko bailuke berdin-berdinak diren bi kasuren aurrean.





Horrenbestez, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan agindutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

GOMENDIOA

1. Aurkeztu zirenetik igarotako denbora dela-eta administrazio-isiltasun bidez onartutzat jotzen diren idazkietan eskatutako informazio guztia eman diezaiola zinegotzi erreklamatzailerari.
2. Aipatutako espedienteak eta informazioa zaintzeko ardura duten langileek al bait azkarren eman ditzatela eskatutako kopiak.
3. Aurrerantzean, alkate-udalburuak edo eskudun agintariak modu formalean eta epearen barruan ebatz ditzala zinegotziak izapidetzen dituzten informazio-eskabideak, eta informazio hori emateari uko egin behar izanez gero behar bezala arrazoitu dezala erabakia.
4. Alkatetzaren 2011ko uztailaren 12ko Dekretua berrikus dezala eta legez xedatutakora egokitu dezala.

